



3

TOKI ADMINISTRAZIOA

HERNANIKO UDALA

Iragarkia

Alkate honek 2024ko maiatzaren 14an ondorengo hau ebatzi du:

Hernaniko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2022ko abenduaren 15ean egindako ohiko bilkuran hartutako premiazko erabakiaren bidez (Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA, 245. zenbakia, abenduaren 28koa), Hernaniko Udaleko Administrazio Bereziko eskalako, Zerbitzu bereziko azpieskalako, Musika eskola/zeregin bereziak motako plaza bat merezimendu lehiaketa bidez betetzeko hautaketa prozesuaren deialdia onartu zen (OP07/2022).

Hautaketa prozesu horretan parte hartzeko eskaerak aurkezteko epea amaituta, oinarri orokorretan ezartzen den moduan hautagaien behin betiko onartuen eta baztertuen zerrenda onartzen da. Zerrenda horretan, izangaien behin-behineko autobaremazioa argitaratzen da puntuazio handienetik txikienera ordenatuta.

Horrekin batera 2023/723 alkate dekretuan onartutako epaimahaien izendapena argitaratzen da.

Hautaketa prozesua arautzen duten oinarriekin bat etorritz eta dagozkidan eskuduntzekin bat etorritz, eta eman zaizkidan ahalmenez baliatuz, honako hau

EBATZI DUT

Lehena: Administrazio Bereziko Eskalako, Zerbitzu bereziko azpieskalako, Musika eskola/zeregin bereziak motako plaza bat merezimendu lehiaketa bidez betetzeko hautaketa prozesuan onartutako eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda onartzea (OP07/2022). Zerrenda hori iragarki honekin batera doa eranskin gisa.

Interesdunek onartutako izangaien behin betiko erabakiaren aurka berraztertze errekurtsoa aurkez dezakete ebazpena eman duen organoaren aurrean, iragarkia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik hasita hilabeteko epean Hernaniko Udaleko erregistro elektronikoa edo Hernaniko Udaleko Herritarren Harrera Zerbitzuan (HHZ): Gudarien enparantza 1, Hernani 20120.

Bigarrena: Autobaremazioak izangaiak bere eskaeran alegatutako eta autobarematutako merezimenduen emaitza baino ez du islatzen. Ez du esan nahi puntuazio hori zuzena denik.

Hirugarrena: Ondoko karrerako funtzionarioak izendatzea Musika eskolako irakaslea- klarinete lanpostuaren hautaketa-prozesuko Epaimahai Kalifikatzaileko kide:

Epaimahaiburua:

—Ana Maria Martinez Muñoz, Hernaniko Musika Eskolako karrerako funtzionarioa IVAP-HAEEtik izendatuta, titularra, eta Lourdes Alkorta Pagadizabal, Hernaniko Musika Eskolako karrerako funtzionarioa, IVAP-HAEEtik izendatuta, ordezkoa.

Epaimahaikideak:

—Joxan Goikoetxea Maritxalar, Hernaniko Musika Eskolako karrerako funtzionarioa, titularra, eta Mertxe Gomez Gonzalez, Hernaniko karrerako funtzionarioa, ordezkoa.

—Miren Elixabete Insausti Arrizabalaga, Hernaniko Musika Eskolako karrerako funtzionarioa, titularra, eta Silvia Sanchez Miguel, Hernaniko karrerako funtzionarioa, ordezkoa.

—Roberto Pacheco Garcia, Hernaniko Musika Eskolako karrerako funtzionarioa, titularra, eta Gurutze Salaberria Garmendia, Hernaniko karrerako funtzionarioa, ordezkoa.

—Miren Garbiñe Orbegozo Semperena, Hernaniko Musika Eskolako karrerako funtzionarioa, titularra, eta Jokin Nazabal Iriberrri, Hernaniko karrerako funtzionarioa, ordezkoa.

Idazkaria:

—M.^a Lourdes Arrieta Zaldua, Hernaniko Udaleko karrerako funtzionarioa, titularra, eta ordezkoa M.^a Mercedes Arozamena Sgastibeltza, Hernaniko Udaleko karrerako funtzionarioa, ordezkoa.

Laugarrena: Oinarri espezifikoetako laugarren xedapenak ezartzen duen moduan, lehiaketa ez da baztertzaileria izango, baina merezimenduak baloratzeko beharrezkoa izango da puntu guztien %25eko gutxieneko puntuazioa lortzea.

Bosgarrena: Hautaketa prozesu honetako oinarri orokorretako zazpigarren eta bederatzigarren oinarrietan ezarritakoaren arabera autobalorazio handiena duten lehen bost hautagaiek eta horiekin berdinduta dauden guztiek 10 egun baliioduneko epea izango dute eskabidean alegatutako merezimenduak eta parte hartzeko baldintzak agiri bidez aurkezteko, erabaki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

Dagokion dokumentazioa Hernaniko Udaleko erregistro elektronikoa bidez edo Hernaniko Udaleko Herritarren Harrera Zerbitzuan (HHZ): Gudarien enparantza 1, Hernani 20120 aurkeztu behar da.

Seigarrena: Zerrenda hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN, Udaleko iragarki taulan, eta Hernaniko web orrialdean (www.hernani.eus) argitaratuko da.

Hernani, 2024ko maiatzaren 14a.—Xabier Lertxundi Asteasuinzarra, alkatea. (3623)

ERANSKINA

—Behin betiko onartuen zerrenda eta behin-behineko autobaremazioaren zerrenda:

<i>Baloratuko den eskabide kopurua</i>					
<i>1. abizena</i>	<i>2. abizena</i>	<i>Izena</i>	<i>NAN</i>	<i>Autobaremazioa</i>	<i>(oinarri orokorrak 9.1)</i>
					<i>Número de instancias a valorar</i>
<i>1. apellido</i>	<i>2. apellido</i>	<i>Nombre</i>	<i>DNI</i>	<i>Auto-valoración</i>	<i>(bases generales 9.1)</i>
AYERBE	GONZALEZ	MIREN JOSUNE	***9076**	100,0000	1
RODRIGUEZ	HITOS	MARIA LOURDES	***8588**	80,0548	2
OCON	ARZA	IZASKUN	***9039**	80,0000	3
NOAIN	MAURA	CARLOS JUAN	***6035**	63,3068	4

ALDUNCIN

IMAZ

CLAUDIA

***0817**

22,0343

EZ/NO

—Behin betiko baztertuen zerrenda:

Ez dago ez onartutako izangairik.